

**GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL KONTSEILUA (GZEK)****2015-01-23ko OSOKO BILKURAREN AKTA**

Gasteizen egina (Seminarioa)
Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 67

DEIALDIA EGIN DUENA:

Presidentea: Juan María Aburto Rique jauna.- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua.

BERTARATUAK**A) KIDE BAKARREKO ORGANOAK:**

- **LEHENDAKARIORDEA. Iñigo Pombo Ortiz de Artiñano jauna.**- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea, **jarduneko presidentea baita**, presidentea ez dagoelako.
- **IDAZKARIA. Angel M^a Manero González jauna.**- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzako Gizarte Gaien Arloko arduraduna.

B) BOKALAK

Lide Amilibia Bergaretxe andrea.- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Gizarte Zerbitzuen zuzendaria.

José Luis Madrazo Juanes jauna.- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako zuzendaria.

Nerea Antia Vinós andrea.- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko aholkularia.

José Antonio De la Rica Giménez jauna.- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko EAEko Koordinatzaile Soziosanitarioa.

Jasone Aldekoa Arana andrea.- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Hezkuntza Berriztatzeko aholkularia.

Cristina Madinabeitia Olariaga andrea.- Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Turismo Zuzendaritzako teknikaria.

Ana Alberdi Zubia andrea.- EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundeko idazkari nagusia.

Paloma Aranceta Arilla andrea.- Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria.

Mercedes Muñiz Estancona andrea.- Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saileko Gizarteratzea Sustatzeko zuzendari nagusia.

María del Río Pereda andrea.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Plangintzako, Inbertsioetako eta Prestazio Ekonomikoetako zuzendari nagusia.

Ibon Uribe Elorrieta jauna.- EUDEL (Galdakaoko alkatea).

M^a José Blanco Gaveiro andrea.- EUDEL (Portugaleteko Udaleko zinegotzia).

Dorleta Goiburu Muruaga andrea.- EUDEL (Euskadiko Udalen Elkarteko teknikaria).

Arantza Ruiz Huidobro andrea.- UGT Euskadi.

Felisa Piedra Gao andrea.- CCOO Euskadi.

Gotzon Villaño Murga jauna.- EAEko Gizarte Langintzako Elkargo Ofizialak.

Karmele Acedo Gil andrea. (Servicios Sociales Integrados S. Coop. elkarte). Euskadiko Lan Elkartuko Kooperatiben Konfederazioko ordezkaria.

Amaia López Iriondo andrea.- CONFEBASK (Euskal Enpresarien Konfederakuntza).

Santiago Canales Abaitua jauna.- CONFEBASK (Euskal Enpresarien Konfederakuntza).

Miguel Angel Ruiz Díez jauna (Arabako Hiesaren Kontrako Batzordea).- Droga-mendekotasunaren esparruko elkarteen ordezkaria.

Natalia Díez-Caballero Alonso andrea (HIRUKIDE-Euskadiko Kide Ugariko Familien Elkarte).- Familiaren Batzorde Iraunkor Sektorialeko ordezkaria.

Josu Gago Palacios jauna (Agintzari Koop E.).- Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektorialeko ordezkaria.

Ainhoa Pérez González andrea (Harresiak Apurtuz koordinakundea).- Etorikinei laguntza emateko GKE-en Koordinakundearen ordezkaria.

Consuelo Ordejón Caballero andrea (Gizarterako Elkarte).- EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundeko Aholku Batzordearen ordezkaria.

M^a José Cano Mesías andrea (FEDEAFES federazioa).- Gaixotasun Psikikoa Duten Pertsonen Eta Senideen Elkarteen Euskadiko Federazioaren ordezkaria.

Inmaculada Mujika Flores andrea (Aldarte Elkarte).- Gay, lesbiana eta transexualen erakundeen ordezkaria.

José Manuel Odriozola Azurmendi jauna (EUSKO FEDERPEN federazioa).- Euskadiko Pentsionisten eta Erretiratuen Elkarte Probintzialen Lurralde Federazioaren ordezkaria.

EZIN ETORRIA ADIERAZI DUTE

LEHENDAKARIA. Juan María Aburto Rique jaunak.- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak.

Xabier Iñigo Ochandiano Martínez jauna.- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako zuzendaria.

Xabier Losantos Omar jauna.- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendaria.

Ignacio Basañez Alfonso jauna.- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Etxebizitzako zuzendaria.

Ana M^a Reka Esparza andrea.- Eusko Jaurlaritzako Segurtasun sailburuaren Kabineteko zuzendaria.

Imanol Agote Alberro jauna.- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Kultura Ondarearen zuzendaria.

Mónica Hernando Porres andrea.- Eusko Jaurlaritzako Lehendakariatzako Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaria.

Izaskun Uriagereka Legarreta andreak.- EUDEL (Mungiako alkatea).

Mikel Noval Fernández jauna.- ELA EUSKAL SINDIKATUA.

Manu Moreno Gil jauna (Euskadiko EAPN).- Gizarteratzeko Batzorde Iraunkorreko ordezkaria.

Javier Domínguez Enteza jauna (ONCE Euskadi).- EAEn zentzumeneko desgaitasunen alorrean lan egiten duten elkarteen ordezkaria.



Pablo González Gutiérrez jauna (FEVAS federazioa).- Desgaitasun intelektuala duten pertsonen aldeko Elkartearen Euskal Federazioaren ordezkaria.

ETORRI EZ DIREN KIDEAK

Batzordekide bat, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Saileko Ekonomiaren eta Plangintza Ekonomikoaren arloan eskuduna den Sailaren ordezkaria.

Kide bat, Eusko Legebiltzarraren (Lan eta Gizarte Ekintzako Batzordea) ordezkari gisa.

Kide bat, LAB sindikatuaren ordezkari.

Kide bat, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Hezitzaileen Elkargo Ofizialak ordezkari.

Bi batzordekide enpresarien erakundearen (CONFEBASK) ordezkari gisa.

Batzordekide bat EAEko Urriku Fisikoen Konfederazio Koordinatzailearen (ELKARTEAN) ordezkari gisa.

Kide bat, Euskadiko Gazteriaren Kontseilua ordezkatzeko.

KONTSEILUAK GONBIDATUTAKO BESTELAKO ORDEZKARI BATZUK (KIDEAK EZ DIRENAK):

Luis Pérez Fernández jauna.- Bizkai, Araba eta Gipuzkoako Psikologoaren Elkargoetako ordezkaria.

Severino Setién Álvarez jauna.- Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialeko ordezkaria.

Xabier Aierdi Urraza jauna.- Eusko Jaurlaritzako Gizarte Politiketako Sailburuordetzaren aholkularia.

Emilio Sola Ballojera jauna.- Eusko Jaurlaritzako Gizarte Politiketako Sailburuordetzaren aholkularia.

.....

LANDUTAKO GAIK ETA HARTUTAKO ERABAKIAK

Behar adinako quoruma egonda, osoko bilkura lehenengo deialdian baliozki eratu da, idatziz lehenago bidalitako deialdian adierazitako egunean eta lekuan. Bilkura 2015eko urtarrilaren 23ko goizeko 11:35ean hasi da, presidenteak finkaturiko honako **Gai-zerrenda** honi jarraituz:

- | |
|---|
| <ol style="list-style-type: none"> 1. Aurreko bileraren (2014-10-22) akta irakurtzea eta onartzea. 2. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazioen eta Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretuaren inguruko nahitaezko txostena egitea. 3. Transexualek sexua berriz esleitzeko prozesu batean murgildu izana egiaztatzekeko administrazio-dokumentazioa eskuratu ahal izatea arautzen duen Dekretuaren inguruko nahitaezko txostena egitea. 4. Eskakerak eta galderak. |
|---|

.....

Jarduneko presidenteak, Iñigo Pombo jaunak, ongietorria egin die bertaratuei, eta, aldi berean, presidentearen eta kontseiluko beste kide batzuen bertaratu ezina desenkusatu du, gaurko osoko bilkuran izatea ezinezkoa zaiela jakinarazi baitute.

1. puntua.- Aurreko bilerako (2014-10-22) akta onestea.

Bidalitako behin-behineko txostenari oharririk egin ez zaionez, aho batez onartu da 2014ko urriaren 22an egindako aurreko Osoko Bilkuraren akta.

2. puntua.- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazioen eta Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretuaren inguruko nahitaezko txostena egitea.

• **Gizarte Politiketako sailburuordea** pozik agertu da 2014ko abenduaren 19an Gizarte Zerbitzuetako Erakundearteko Organoak (GZSO) hartutako erabakiarekin, zeinak Zorroari buruzko Dekretuaren aldeko txostena eman baitzuen, 6 urteko negoziazioen ondoren. Ezin dagokioke gobernuari egotzi emaitzaren meritu osoa, GZSO-n parte hartu duten administrazio guztien eta urte hauetan guztietan esku hartu duten gainerako eragileen lankidetzaren fruitu denez. Horietako asko hemen dira, eta horien lanik gabe, ezinezkoa litzateke hau guztia.

Hona hemen gaurtik aurrerako urratsak:

- Zorroari buruzko Dekretua: gaurko egunarekin osatu da Gizarte Zerbitzuetako Euskal Kontseilu honen nahitaezko txostena, eta aurrerago, aldiz, Kontseilu Ekonomiko eta Sozialarena, Kontrol Ekonomikoko Bulegoarena eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarena. Aurreikusitakoaren arabera, apirilaren 30erako gobernu-kontseiluaren mahai gainean egongo da.

Plan estrategikoa: era berean, plan estrategikoa osatu behar da, 2014an osatu behar zena (baina ezinezkoa izan da), eta hiru zati izango ditu: plana, memoria eta mapa. Memoria eta mapa zorroari atxiki zaizkion arren, ezin denez zorroa egin zenbat kostatuko den eta zein zerbitzu barne hartuko dituen jakin gabe, gizarte-segurantzaren mapa eta Euskadiko Gizarte Segurantzaren Euskal Sistema osoari eusten dion memoria ekonomikoa ere atxiki behar zaizkio plan estrategikoari. Plan estrategiko hori bidaliko zaie gutxi barru erakundeei eta kontseilu honi, dagoeneko Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak esku artean duen zirriborroa lantzen hasteko.

Zorroari buruzko dekretua lorpen oso garrantzitsua da, zerbitzu-katalogoaren adierazpen zehatza delako; hau da, bertan azaltzen da zein zerbitzu eta prestazio jasotzeko eskubidea duen pertsona orok Euskadin. Zerbitzu horien gaineko eskumena duten administrazioek ez dute begi onez hartu horiek ematearen kostua, eta hori izan da eragozpenik handienetako bat 6 urte hauetan. Horrenbestez, 2011ko abenduaren 31n, Inbentario bat egin zen, administrazioen inkestetako datu guztiak alderatzen zirena (gizarte-zerbitzuen inkesta, gastu publikoaren inkesta, etab.). Datuen arabera, 2011ko abenduaren 31n, gastu publiko arrunta 958,5 milioi eurokoa zen. Inbentario horretatik kanpo geratu ziren DBE, EPO eta GLL; alegia, guztira, 500 milioi euro inguru gehiago.

Datu horietan oinarrituta egin dira 2017rako gastu-aurreikuspenak –zehaztasun eta zuhurtzia handienekin–, eta gaurtik aurrerakoan egingo den edozer lan ezarritako betekizunak (orokorrak eta espezifikoak) betetzen dituzten pertsonen legean zehaztuta dauden prestazioen eta gizarte-zerbitzuen gaineko eskubide subjektibo unibertsala gauzatu ahal izatea bermatzeko plangintza-tresnatzat hartu behar da.

2017rako estimazioak 118 milioi euro gehiago aurreikusten ditu 2011ren aldean (zerbitzuak alderatuz gero eta bitarte horretako urteko hazkunde mailakatuak kontuan hartuta). Zenbateko horri gehitu behar zaizkio, gainera, atxiki diren 3 elementu berrien ondoriozko gastua:

- Katalogoko zerbitzu berriak, existitzen ez direnak (esate baterako, gaueko zerbitzua adinduentzat).
- Mendekotasunaren legea aplikatu behar denez aurtengo maiatzetik aurrera, indarrean jarriko da 1. graduako mendekotasuna pertsonen zuzendutako egutegia.
- *Bateragarritasun* gaia, nagusiki Bizkaian eragina izango duena. Zorroari buruzko dekretuak prestazioen eta zerbitzuen arteko bideragarritasunak ezarri ditu (esate

baterako, familia-giroan zaintzeko prestazioa kobratzen ari den pertsonak etxeko laguntza ere jaso dezake).

Gizarte Politiketako sailburuordeak adierazi duenez, horiek guztiak kontuan hartuta ere, % 80a baino gehiago (zehazki, % 81,9) mendekotasunaren legeari dagokio, eta ordainduta behar zuen, zorroari buruzko dekretua onartu gabe ere. Bere iritzian, euskal administrazioek ez dute murrizketarik egin mendekotasunaren esparruan.

Printzipioz, administrazio orok berari dagozkion gastuen ardura hartuko du, baina *funts* moduko bat ezarri da, erakundearteko lankidetzaren mota bat, Finantzen Euskal Kontseiluak zehaztuko duena, estimazio hauen arabera:

- Lehen urtean, 2016an: 10 milioi euro. Udalei xedatuko zaizkie, zerbitzu sortu berriak edo oraindik nahikoa sendotu edo garatu ez direnak martxan jartzen laguntzeko.

- 2017. urtean eta ondorengoetan, denbora-mugarik izango ez duen funts bat egongo da, 20 milioi eurokoa urteko, zerbitzu berri edo gutxi garatuetara bideratuko dena; ez da izango udalentsako bakarrik, foru-aldundietara eta zerbitzuetara zein prestazioetara ere bideratuko denez.

- **Txema Odriozola** FEDERPENen ordezkariak hartu du hitza eta guztien ahalegina eskertu du, eta dokumentua «*konplexutasun oso handikoa*» dela onartu du. Hori dela-eta, aurkezpen-tresnaren baten bitartez egokitzea (powerpoint-a, .doc fitxategia, laburpen bat, etab.) eskatu dio Sailari, dekretua adinduen elkartei ezagutarazteko. Mendekotasunaren finantzaketari buruzko informazioa ere eskatu du (oinarrizkoa, osagarria, etab.).

- **Gizarte Politiketako sailburuordeak** onartu du testua konplexua dela eta beharrezkoa dela lan didaktikoa egitea. Ziur asko, horretarako une egokia elkarren artean loturaren bat duten dokumentu guztiak eskuratu direna izango da: zorroa, plan estrategikoa, etab.

Finantzaketari dagokionez, gogora ekarri du mendekotasunaren legeak 3 finantzaketa-lerro ezartzen dituela: oinarritzko maila, Estatuako administrazio orokorrak finantzatzen duena, sistemak eta eskumena duen zerbitzuak onartutako mendekotasun bat duten pertsonentzat; itunpeko maila, Estatuak eta autonomia-erkidego bakoitzak itundutakoa, bi aldeek ekarpen berdina egiten dutena (gaur egun ez dago indarrean); maila gehigarria da azkena, autonomia-erkidego bakoitzak zerbitzuen eta prestazioen finantzaketari egiten dion ekarpenarena, indarrean dagoena eta desberdin gauzatzen dena (Estatuaren eta Mendekotasunari Arreta emateko Sistemaren arteko deshomogeneizazioa). Edonola ere, finantzaketaren datua objektiboa da, mendekotasunaren legea dela medio, EAEk Estatuako Administrazio Orokorratik jasotzen duen sarrera-fluxua egiaztatu daitekeenez.

- **Amaia López** andreak, CONFEBASKen ordezkari bera, zorionak eman dizkie zorroari buruzko dekretuan parte hartu duten erakunde eta pertsona guztiei, gai oso konplexua delako eta aurrerantzean ere horrela izango delako. Bestalde, 3 ohar zehatz egin nahi ditu:

- Zorro horretan, prestazio ekonomikoen aldean zerbitzuak lehenestea nahi dute. Izan ere, azken urte hauetan, sektore pribatuak eta erakundeek inbertsio handia egin dute arreta-sistema oso bat eratu, eta langilez hornitzeko.

- Dekretuaren 9.4 artikuluan aipatutako «egokitasuna» kontzeptuak zein irismen eta bilakaera dituen argiago azaltzea nahi dute (zerbitzuetarako eta prestazio ekonomikoetarako sarbide-betekizunak eta -irizpideak), hala nola hiru lurraldeetan aplikagarria izango den irizpiderik zehazteko asmoa dagoen.

- Gizarte Segurantzaren mapa estrategikoari dagokionez, garrantzitsua iruditzen zaie 2017tik gerorako egoera ere kontuan hartzea «*etorkizunean zerbitzu-sistema sendoa izatea nahi bada*».

- **Iñigo Pombo** jauna, *a priori*, bat dator zerbitzuei prestazio ekonomikoei baino lehentasun handiagoa ematearekin, baina, hori horrela, ez zaio alde batera uztekoa iruditzen eredu komunitarioa, legeak ere nabarmentzen duenez. Pertsona bat bere etxean edo komunitate-ingurunean egon dadin, ez da ezinbestekoa prestazioak egotea, zerbitzuak ere eskaini ahal zaizkionez. Guztiek ikusi dugu familia-giroan zaintzeko prestazioa, mendekotasunaren legearen arabera salbuespenezkoa zena, eskatu dutela gehienek. Joera horretaz ohartuta daude erakunde guztiak.

Egokitasuna BAPei (Banakako Arreta Plan) loturik aipatu da; alegia, mendekotasunaren balorazioa egin ondoren, banakako arreta-plana osatzen da, pertsona horren diagnostikoari eta diagnostikoa aplikatzeko pertsona horrek berak edo bere familiak dituen baliabideei egokিতa egon behar dena.

Zorroak nolabaiteko behin-behineko izaera izatea da asmoa. Horretarako, berrikusi egingo da 2017an. Aurreikuspenak oraingo baldintzen arabera dira, baina horiek ezin dira finkoak izan, eta berrikusi egin behar dira.

- **Miguel Angel Ruiz** jaunak, droga-mendekotasunen arloko elkarteen ordezkari denak, oso albiste ona iritzi dio zorroa onartu izanari, baina ez zaio iruditzen inor zoriondu behar denik, atzerapena agerikoa delako eta, legeak berak ezarritakoaren arabera, erabat garatuta egon behar delako 2017an. Sailburuordeak adierazi duenez, zorroaren ondoren, plan estrategikoa etorriko da eta oso adi jarraitu dute Hirugarren Sektoreari buruzko Estatuko Legea, atzo onartu zena Madrilén. Hirugarren sektoreari buruzko Euskadiko Legea ere laster onartuko da, «kontzertazioa» erabilita bitarteko berri gisa.

Gizarte Segurantzaren legeak apustu argia egiten du hirugarren sektorearekin lankidetzan jardutearen alde, eta hirugarren sektorearen kudeaketapeko alorren bat egon behar dela agintzen du, administrazioekin elkarlanean kudeatzekoa, baina kontzertazio-bitarteko berria erabiliz. Zalantzazkotzat jotzen dituzte hitzarmenak zenbait erakundek, eta ordezeko aukera bakarra, dirudienek, gizarte-zerbitzuak kudeatzeko kontratuak baliatzea da, hirugarren sektoreak klausula sozialei garrantzia eman beharko dienak (foru-arauen bidez). «*Edonola ere, ez gaude ados formula horrekin, eta nahiago dugu kontzertazioaren alde egin apustu*». Harreman hori zehazteko ezinbestekoa da esparru juridiko argi bat edukitzea. Gaia jorratzeko eperik aurreikusi da?

- **Gizarte Politiketako sailburuordeak** erantzun duenez, kontzertazioaren gaia oso argi dute gizarte-zerbitzuetan eskumenak dituzten euskal administrazioek, Euskadiko hirugarren sektore sozialaren lege-proiektuan zehaztuta daudelako eta txostena Gizarte Zerbitzuen Erakundearteko Organoari aurkeztu zitzaionean inork ez zuelako auzitan jarri. Gainera, Eusko Jaurlaritzak izapidetzeko beharrezkoak diren irizpen eta txosten guztiak gainditu ditu proiektuak, Kontrol Ekonomikoko Bulegoarena barne. Egun Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoan dago. Aurreikusitakoaren arabera, otsailean landuko dute Legebiltzarrean.

Estatuko hirugarren sektoreari dagokionez, adierazi du horren eta gurearen lehen urratsak ez direla berdinak izan. Gizarte-zerbitzuak -administrazioarekin lankidetzan kudeatzeari buruz, Miguel Ángel Ruiz jaunak esandakoarekin bat dator.

- **Gotzon Villaño** jaunak adierazi du EAEko gizarte-laneko kidego ofizialek oso ontzat jotzen dituztela lortutako akordioa eta egindako lana. Hala ere, eta oraindik ere garaiz dabilztan jakin gabe, alaketak egin nahi lituzke 2 artikulutan (Bizkaiko Kidego Ofizialaren izenean igorriko diote proposamena Eusko Jaurlaritzari):

- Gizarte-balorazioa eta -diagnostikoa hizpide dituen 17. artikulua, hasierako balorazioa egiteko erantzukizuna nori dagokion zehazten duen horrek, «*gizarte-langile*

batek egin beharko du, behar izanez gero, beste profesional batek lagunduta» adierazi behar luke.

-35. artikulua, berriz, honako hau: «*Erreferentziazko gizarte-langilea, hasierako gizarte-diagnostikoa egingo duena...*»

- **Gizarte Politiketako sailburuordeak** adierazi duenez, jada ezin zaizkio aldaketak egin dekretuari, baina kontuan hartuko ditu, ez baita dokumentu itxi eta behin betikorik osatu nahi, ireki eta aldian behin berrikustekoa baizik, aldatu beharrekoak aldatu ahal izateko (erakundeak aurrez ados jarrita).

- **Severino Setién** jaunak, Euskadiko Fisioterapeuten Kidego Ofizialaren ordezkariak, zorionak eman dizkie zorroari buruzko dekretuan parte hartu duten guztiei, ondo dakielako ahalegin eta lan handiak egin dituztela. Hala ere, atsekabea adierazi du, parte hartu arren, «ordezkatzen duen kidegoak proposatutako alegazio pilaren % 1 baizik ez baita aintzat hartu». Iritzi askotarikoak egon arren, bere ustean «beti aipatu eta aipatuko dugu kalitate-eskakizunaren gaia, 2008ko gizarte-zerbitzuen legearen azpian dagoena; profil profesionalak egotea eta eskumen profesionalak errespetatzea agintzen du, bereziki osasunarekin zerikusi apurren bat duten eskumenen kasuan. Gure alegazioek ez dute horiez beste xederik izan». Hobekuntzak egiteko aukera egon da, batez ere zaintzaile informalen arloan. Abagune ona zen zuhurtzia eskatuko lukeen eta erabiltzaileek jasandako arriskua mugatzea lekarkeen oharra sartzeko.

- **Gizarte Politiketako sailburuordeak** bere erantzunean argitu duenez, zorroari buruzko dekretua ez da zentroetan zein profil profesional egon behar diren zehazteko lekua. Adibidez, adinduen egoitzei buruzko artikulua fisioterapia arloko arreta aipatzen du, baina ez du fisioterapeuta kopurua zehazten, ezta horien lanaldia ere, eta abar. Horiek guztiak adinduen egoitzei buruzko dekretuan daude zehaztuta. Alegia, kontua ez da horiek guztiak zehaztu nahi ez izatea, baizik eta horiek zehazteko esparrua beste bat dela.

- **Kontseiluko lehendakariordeak** itxi du oharren txanda eta adierazi du organo horrek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretuaren gainean egindako nahitaezko txostenak kontuan hartuko dituela gaurko osoko bilkuraren aktan jasotako oharrek.

3. puntua.- Transexualek sexua berriz esleitzeko prozesu batean murgildu izana egiaztatzeko administrazio-dokumentazioa eskuratu ahal izatea arautzen duen Dekretuaren inguruko nahitaezko txostena egitea.

Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legearen II. Kapituluan daude ezarrita transexualitatearen arloko politika publikoaren oinarriak. Genero-identitateagatik jokabide baztertzaleen aurka hartu eta garatu beharreko neurriak ezartzen ditu. Aholkularitza- eta laguntza-zerbitzuak ere zehazten ditu. Eta sexua berresleitzeko prozesuak iraun artean beharrezkoak dituzten administrazio-dokumentuak eskuratzeko aukera ematen die transexualei, sufrimendu pertsonala eta gizarte-bazterketa ekiditeko.

Azkenik, Legearen 7. artikulua erregelamendu-garapena aurreikusten du, Gizarte-zerbitzuen Euskal Kontseilu honen nahitaezko txostenak jorratzen duen Dekretua aurreneko zirriborroa dena. Aurretiazko urrats horren eta egingo diren txostenen ondoren, behin betiko testua bidaliko zaie Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Egun Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari.

- **Inmaculada Mujika** andreak, lesbiana, gay, transexual eta bisexualen elkarleen ordezkariak, LGTB kolektiboek dekretua begi onez hartu dutela adierazi nahi du.

Transexualitateari buruzko euskal legea onartu zenetik (2012), 7. artikulua garatu gabe egon da, sexua berresleitzeko prozesuak iraun artean administrazio-agiriak emateari buruzkoa hain zuzen. Buruan «buelta eta buelta ibili» dugu eta, azkenean, dekretu hau osatu da, 7. artikulua garatzen duena.

Dekretu beharrezkoa eta positiboa da, aurrerapauso bat zinez, transexualei genero-identitate egokiaren arabera agiriak eskainiko baitzaizkie, eta, horrela, genero-identitate egokiarekin bizitzeko trabak eta zailtasunak gainditu ahal izango dituzte.

Hala ere, alderdi negatiboari dagokionez, dekretuaren idazkera aldatu egin behar dela iruditzen zaie, bai edukia, bai inguruabarrak. Dekretuak ibilbidea hasi besterik egin ez duenez, eta Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzak aldaketa horien inguruko bilera batera deitu dituenek, proposamen horiek bilera horretan aurkeztu ahal izango dituzte.

- **Txema Odriozola** jauna, FEDERPENeko ordezkaria, ados dago dekretuaren xedearekin, aukera ona eta modernoa delako transexualitatearen esparruan; herrialde batzuetan jaiotzetik beretik ematen dituzte horrelako agiriak («sexuarena aurreragorako uzten dute, ea zer gertatzen den»).

- **Kontseiluko lehendakariordeak** itxi du oharren txanda, eta dekretua jakinarazitzat eman du. Gogora ekarri du, halaber, Eusko Legebiltzarrean onartutako lege bat garatu duela Jaurlaritzak, transexualen gizarteratzea hobetzeko helburuarekin.

4. puntua.- Galde-eskeak.

- **Gizarte Politiketako sailburuordeak** aurreko osoko bilkurako gai bat aipatu du, EAEko Gizarte Zerbitzuen Urteko Txostenari buruzkoa hain zuzen. Horrenbestez, aditu-talde bati gizarte-zerbitzuetako alderdi jakin batzuei buruz idaztea eskatu zitzairen eta lan hori jada amaituta dago. Gainera, txostena datu eguneratuenekin osatzea zen asmoa, gizarte-zerbitzuen euskal sistemaren gaineko ikuspegia hobea izan zedin. Oraindik ere 2012. urteko datu batzuk falta dira, baina Sailak asmoa du 2 hilabete barru kontseiluaren bilerara deitu eta txostena aurkezteko.

- **Natalia Díez-Caballero Alonso** andreak, Familia gaietarako Batzorde Iraunkor Sektorialeko ordezkariak, diru-laguntzen deialdi goiztiar edo aurreratua eskertu nahi du eta ahalik eta lasterren ebaztea espero du.

Ez da beste galderarik eta eskaerarik izan, eta, horrenbestez, jarduneko presidentek bertaratuei eskerrak eman ondoren, amaitutzat eman du osoko bilkura, 2015eko urtarilaren 23ko 12:20an.

IDAZKARIA

Indarreko LEHENDAKARIAREKIN oniritziarekin

Angel M. Manero

Lide Amilibia Bergaretxe

.....